

Pandemiak atzerrira egindako EAEko esportazioak hondoratu ditu

Eustatek berretsi du EAEko esportazioak aurtengo lehen hiruhilekoan amildu egin zirela. Martxoko bigarren hamabostaldian jarduera gelditu izanak %21,5 hondoratu zituen salmentak hilabete horretan eta, horren ondorioz, hiruhileko balantzean salmentak %9,9 jaitsi ziren. Guztira, 5.568 milioi euro balio zuten produktuak esportatu ziren, 2016ko amaieratik inoiz jaso den diru kopururik txikiena baita. Sektore guztiak oso nabarmen uzkurtu ziren, salbuespena lehen sektorea izan zela-


rik. Kaltetuenen artean, metal arruntak eta beren manufakturak (-%14,6) eta automobilgintzaren sektorea (-%13,9) daude, batez ere Mercedes Benz eta Michelin enpresen geldialdiaren ondorioz. Barne jarduera ere erabat baldintzatu zuen pandemiak, eta haren geldialdia inportazioetan nabaritu zen, %11,5 jaitsi baitziren lehen hiruhilekoan. Bi kopuru horien saldoa, guztira, 1.004 milioi eurora iritsi zen.

ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Miloi euro

URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA

-%9,9





INPORTAZIOAK GUZTIRA

Miloi euro


MERKATARITZA SALDOA GUZTIRA

Miloi euro



ESPORTAZIOAK ALEMANIARA


Urte arteko aldakuntza tasa



28 kidez osatutako Europar Batasuna izan zen berriz ere EAEko esportazioen helmuga nagusia, eta esportatutako guztiaren ia %70,0 bereganatu zuen, 2008ko krisiaz geroztik izan duen merkatu kuotarik handiena baita. Datu on hori gorabehera, Covidek Europako bazkide nagusiei ere eragin zien, eta, beraz, haren eskaera maila nabarmen murriztu zen, eta salmentek beherakada handiak izan zituzten. Bitxia bada ere, Txinak, pandemia osoaren epizentroak eta lehen hiruhilekoan bere itxiera eta konfinamendu luzearen ondorioz gehien kaltetu den herrialdeak, EAEko produktuen erosketa handitu zuen lehen hiruhilekoan.


ESPORTAZIOAK FRANTZIARA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK ERRESUMA BATURA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK TXINARA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK AEB-ETARA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.